

25 danbolin

2023 abendua

277 zk



agur agur
Txoko



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, beheka - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



erdikalea 3
tel. 943 147 196

Ekain Berri
kafetegia

Ordutegia
Aste barruan 06:30/13:30 16:30/20:30
Asteburutan 06:30/14:30
Arratsaldez itxita
By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA



943 147 657



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com


Tel.: 943 14 73 44



URRIA
1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31
ABENDUA
1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28
29 30 31
Egun osoan irekita Mui topaketa 22:00etan Irekita 18:00etatik aurrera Itxia



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK

Gesalaga kalea, 22 beheka 20740 ZESTOA
Tel./Fax: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicinicaidental@gmail.com
ZURINE ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDOIA ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28



— 943 29 08 99 —
Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa



EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com



kutxi eta pentsuak
www.laiakdenda.com
tfnua: 943148134
laiak
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean



Tlf 943 323 894
Gurutzeaga kalea 11-13



Eizagirre
Okindegia

Tel: 943 090341



Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269



Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l. Itzulpenak baino askoz gehiago!

Narkis Balentziaga, 2 20749 Arroa (Gipuzkoa) +34 943 148 306 bakun@bakun.eus
+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73



foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Landetxea
eta
jatetxea
943 148 005

HASI eta BUKA

"Españoles, Franco ha muerto", halaxe eman zuen Arias Navarrok notizia. Batzuek atzo bezalaxe gogoratuko dute, baina 50 urte pasa dira ordutik, erraz esaten da. Orduan jaio gabe nintzen ni eta Navarroren agerraldia ezin ba zuzenean ikusi. Esango nuke *Yoyes* pelikulan ikusi nuela lehenengo aldiz, baina gizon xahar aurpegi triste haren aurpegia baino hurrengo irudiak gelditu zitzaizkidan gogoan: hura poza tabernakoena, xanpaina leporaino, trikitia, irrintzia, dantza eta festa! Hemen ere, pentsatzen dut halako ospakizunik izango zela. Egun hartan ez dakit, baina umetan ondo gogoratzen dut gurasoek nola egiten zuten 20N-ko afaria kuadrillan. Gerora konturatu nintzen zer esan nahi zuen 20N horrek. Aurtun, osteguna egokitu da, eta geu ere afaltzeko elkartu gara, aitzakia gutxiagorekin ere egiten ditugu, ez? Ospakizunak izango ziren orain mende erdi, baina oraindik isilik eta kontuz pentsatzen dut. Ia 40 urteko diktadura ez baita egun batetik bestera bukatzen, arrasto handia utzi du gerora ere Franco xaharrak.

36 urte pasa zituen agintean diktadoreak, eta bizitzaren legeak kendu zuen postutik. Agonia luzea izan zen harena. Uste dut agintean den beste bat ere ari dela atzera kontaketan, aurrekoan alkatetzat bukatzeko geratzen zitzaizkion hilabete eta egun kopuru zehatza entzun nion alkateari berari. Hirugarren legealdia darama udaletxean, azken biak alkate eta Mikeli ere iristen ari zaio etxe handiko bukaera. Zikloak hasi eta bukatu egiten baitira, hala behar du. Bizitzan hasierak eta bukaerak asko markatzen gaituzte, baina beharrezkoak dira. Eta etapak bukatu eta itxi egin behar dira berriei aukerak irekitzeko. Oraingoz eskuartean darabiltzan kontuak errematatu nahian dabil, eta gero? Ba auskalo... Aspaldian abandonatu samar dituen mendi eta borda galduetan imajinatzen dut nik. Kar, kar, kar!

Francoren bukaera ezin izan nuen zuzenean bizi, baina bai Txoko tabernaren itxiera. Azaroaren 30a, iluntzeko 21:40 edo izango ziren. Eskobarekin bidali gintuzten eta gure aurrean itxi zuten pertsiara. Aix... Txoko... Ume-umetako oroitzapenak ditut, gu sukalderraino sartzen ginen, liluratuta begiratzen nien barra atzeko hontzei eta orduan ikaragarri modernoak iruditzen zitzaizkidan komune-ko baldosak. Gerora ere komunera bidean beti egin izan diot bisitatxoa Marikarmeni. Ez zegoen jakiterik nola erreakzionatuko zuen, purrustaren bat ez zen faltako, hori segurua! Baina hori ere maitasunez, eskaloepa eta tortilla patata bezalaxe. Horiek bai *manjareak*! Eta Luixek eta bere hontzek argiak itzalitakoan ikusi dituztenak kontatuko balituzte... Aix... zenbat dantza, algara, *ligoteo* eta adar-jotze. Faltan botako ditugu. Hasitakoa, ordea, bukatu egiten dela esan dugu eta merezita-ko erretiroa dagokie; orain barraren beste aldean elkartuko gara!



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argibarrabazilea: danbolin zulo elkartea. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: naiara exposico, amaiur arisci, urko canseco, sara matsutani, peru gartzia, jone bergara, itsaso waluño, ohiana calparsoro eta oihane goikoetxea
Kolaboratzaile/auzenbaitale baldea: nagore telleria, jon artano, fernando arzallus, onintza irureta, mireia orbegozo, eider arrizabalaga, maider arregi, nerea odrizola, itsaso zubiria eta MIKEL IRURE
Diseinua eta markezak: eneko arisci
Inprimategia: gertu (oñati).
Lege gordailua: SS-1108/2000
ISSN: 1576-9429



gazte ginen gazte

Ba hemen nago Ado, astelehen goiz honetan, 2000 karaktere espazio eta guzti idazten, ea zer ateratzen zaidan kontatzeko. Ba bai, gu ere izan ginen gazte, zeu bezala neu ere hainbeste maite dudan herri txiki eder honetan.

Oroitzapen ugari ditut garai hartakoak, liburu bat betetzeko modukoak!

Gehien gogoratzen dudana da gure Elizondo zentroan bizita-koak. “Vinilo” haiek, euskal kanta berriak, eta beste herrialde batzuetatik etorritako musika eta doinu ederrak, beste hizkuntza batean abestuak, baina bihotzean geratzen diren horietakok. Oraindik ere zeuk badakizu ondo asko Mollergin jartzen ditudala. Eta nola ez, Elizondo zinema, zenbat oroitzapen goxo. Txikiak ginela Tarzanen pelikulak eta indioa eta bakeroenak ikusten genituen; eta gu oihuka *Septimo de caballeria* agertzen zenean... indio gizagaixoak, gero jakin genuen bai benetako istorioa. Eta gaztetan, zine forum eta “mayores de 18” pelikulak.

Oraindik buruan daukat zine forum saio batean ikusi nuen *El expreso de medianoche* pelikula, oso ona, oso gogorra ere bai. Hantxe, areto hartan bertan, Benito Lertxundi, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Xabier Lete... zenbat abeslari entzuteko aukera izan genuen, baita orduko bertsolari handiak ere bertso saio ahaztezinetan. Kirolak ere bazuen tartea gure gazte garaian. Guk ere bagenituen gure “idoloak” eta horiek eskubaloio jokalaria ziren. Bai, eskubaloia zen urte haietan herri osoak jarraitzen zuen kirola. Egundoko poza irabazten zutenean eta malkoak galdutakoan. Hor ibiltzen ginen denok partidutik partidura gure ekipoa animatzen oihu batean.

Beno, 2000 karaktereak pasa aurretik, nire enbidoa bota nahi diot Jose Luis Ugarteri, “Pepeluri”. Gure orduko “idolo”etako bat zen. Kontatu iezaiezu, bereziki gazte hauei, nola izan ziren “urrezko” urte haiek, eta noraino iritsi zinen zure ezkerreko beso eta esku potente harekin!

Lurdeg arrizabalaga

pintada.

zestoa elkartasunaren alde lerratu da. Herriko sei bizilagun akusatuen aul-
kietan eseri dituzte emakume baten aldeko elkartasun feminista artikulatzeagatik. Indarkeria matxistaren kontra gu-
txieneko oinarriak finkatuta dituen gizarte batean, ezinezkoa litzateke horrelakorik gertatzea; baina gertatu da, gizon
batek justizia sistema heteropatriarkalean aurkitu duelako konplizerik behinena. Zestoak, hala ere, bidegabekeria ho-
rren neurriko erantzuna eman du: herriko ia 30 eragileren babesu jaso dute akusatuek eta Donostiako Auzitegiraino
eraman dugu abenduaren 14an plazan gainezka egin zuen elkartasun feminista. Bide onetik goaz, segi dezagun eredu
izaten. Zuekin gaude!

zestoako mugimendu feminista



ISPILUAREN AURREAN

Batzuetan norbere burua aurkitzeko ezezagunak diren lekuetan galdu beharra dago. Txikitatik hasten zaizkigu galdezka, eta zuk, zer nahi duzu izan handia zarenean?

Ikasketen norabidea ere azkar aukeratu behar izan ohi dugu, atzera bueltarik ez duela ematen duen bide arrotz horren hasiera, tunelaren bukaeran zer topatuko dugun jakin gabe. Lan txukuna lortu (ez daukat oso garbi nik zer den hori), etxe bat erosteko diru nahikoa egin; eta daukazu edo lortu duzun horren egitoki eskerrak eman bizitzari, halaxe diote batzuk.

Baina inoiz jarri al zara pentsatzen zerk egiten zaituen zorientsu? Edota hartutako erabaki horiek aldatuko bazenitu nolakoa izango zen zure bizitza?

Niri bizitzak ederki erakutsi dit zenbat buelta eman ditzaken. Betidanik izan dut jakin-min handia esperientzia berriak bizitzeko eta kanpoko mundu horrek ze aukera eskaintzen dizkigun esploratzeko. Nire suertarako, herrialde mordoxka bat bisitatzeko aukera izan dut, baita bertan bizimodu bat egiteko ere; hasi Australiako hondartzara amaigabeetatik eta New Yorkeko bizimodu kaotiko eta zirraragarriaraino. Eta horrela konturatu naiz zein polita den bizipen horiez guztiez elikatu eta zeure burua nola aldatzen, osatzen eta definitzen joaten den ikustea. Behin, nire burua gehiago ezagutzeko saiakera horietako batean batek horrela esan zidan: “Zuk Maialen, asko bidaiaituko duzu eta buelta asko emango dituzu hortik zehar, baina beti itzuliko zara Euskal Herrira, zure maitatuenak dauden lekura, zure babesera”. Eta halaxe izan da! Hemen nago berriz, hazi eta hezi naizen nire betiko herrian, nire bizitzako kapitulu berri bat hastear. Bada sentimendu nahasketa handi bat nire barruan: zirrarra, beldur eta ziurgabetasun pixka bat, baina baita lasaitasuna eta sekulako poztasuna ere.

Eta urte hauetan ikasi dudak lezio garrantzitsuenarekin amaituko dut gaurko zutabe hau: gozatu bizitza den bide korapilatsu honetaz, eta honek eskaintzen dizkizun aukera guztiez, entzun zure instintua eta egin kasu prozesuan zehar loratzen diren sentimenduei, horrela agian, zorientasunetik gertuago egongo zara.



EUSKARAREN GAINBEHERA

Pasa berri dugun euskararen egunak pentsakor utzi nau. Euskaraldia, Durangoko Azoka, Korrika... badira hainbat ekitaldi euskararen aldekoak eta hau bultzatzen dutenak. Egun horietan denok gara euskaldun, denok dakigu euskaraz, denok egiten dugu euskaraz, denok

egingo genuke edozer euskaragatik, denok...

Denbora gutxian, euskararen erabilera nabarmen murriztu da, eta larriki zaurituta daude gure inguruan ditugun arnaguneak. Batzuk, garrasika la-

guntza eske, eta besteak, egoerari ahal duten moduan erantzun bat eman nahian. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi, hiri eta hiriburuetan bizi den egoera kritiko eta pasiboa.

Jakina da euskarak historian zehar jasan behar izan duen errepresio guztia. Oraindik, ez dakigu gure hizkuntza eder hau nondik datorkigun. Badakigu ordea, gaur egun hitz egin ahal izateko, egin behar izan duen bideaz eta gaitzitu behar izan dituen oztopoez. Euskal nortasunaren ardatz nagusienetako bat da, nagusia ez bada. Eta horrela jarraitzen badugu, etorkizun beltza izango dute hurrengo euskal hiztunek.

Urte asko daramazkigu euskararen gainbehera aipatzen. Agian hori da arazoa. Aipatu soilik egiten dela, eta norberak duen erru eta erantzukizunaz ez garelako benetan kontziente. Nabarmena da atzerriko hizkuntzetatik hartzen ditugun hitz eta esaldien gorakada, eta zoritxarrez, ohiko egin ditugun esamoldeena. Zenbat aldiz gertatu zaitu, taberna batera sartu, zure lehen hitza gaztelaniaz egin eta tabernariak euskaraz dakiela ohartzea? Edo, euskal derbi bateko futbol partidaren emaitza gaztelaniaz esatea?

Begiak ireki eta zerbait egiteko garaia da. Aipatutakoak eta gehiago egunerokotasunean bizitzen ditugu, eta pena handiz, normalizat jotzen ditudala ohartu naiz. Puntu hontara iritsita... hobeto ala okerrago. Batzuk beste batzuk baino jantzia-ago. Baina argi dago nola lagundu diezaiokegun hizkuntzari. Hitz egiten!

Nafarroako txapeldun berria den Xabat Illarregik esan bezala, “hizkuntzarik ez duen herri bat ez da herri izango”. Nik herri izaten jarraitu nahi dut, eta zuk?



PERTSIANA BETIKO ITXI ETA 24
ORDU PASA AURRETIK HARTU
NAUTE MARI KARMEN EIZAGIRREK
ETA LUIS AZKUEK BEREN ETXEAN,
TXOKO TABERNAN. URTE ASKO
EMAN DITUZTE ERDIKALEA
ZAITZEN ETA ORAIN ERRETIROA
HARTZEKO UNEA IRITSI ZAIE.
BIZITZA OSOA ESKAINI DIOTE
TABERNARI, ETA ORAIN BIDE
BERRIA HASIKO DUTE.



Mari Karmen, Luis eta
Gadea tabernaren
inaugurazio egunean

Tabernako pertsiana jaitsi zenuten atzo iluntzean. Nola esnatu zarete gaur?

Luis: Biharamun emozionalarekin esnatu gara, hunkituta. Agur festa oso ondo joan zen, jendea oso ondo portatu zen.

Mari Karmen: Ni oso goiz esnatu naiz gaur. Arraro sentitu naiz, ez nekien zer ari nintzen bizitzen. Atzo ere antzeko nengoen, beno, azken hilabetea horrelaxe joan da.

Noiz hartu zenuten erretiroa hartzeko erabakia?

M K: Santakutzak pasa ondoren hartu genuen erabakia. Gadeak martxoan esan zigun haurdun zegoela eta ikusten genuen horrela ezin genuela jarraitu. Gu ere adinean aurrera goaz eta erabakia hartu behar genuela esan nion Luisi. Hobe da modu elegante batean agur esatea lurretik arrastaka baino, eta uste dut lortu dugula.

L: Bagenekien bukaera iritsiko zela baina ez genekien noiz. Erretiratuko ginela erabaki genuenean egunik onena zein izan zitekeen pentsatzen hasi ginen. Mari Karmenek urteko azken egunera arte jarraitzeko esaten zidan, baina nik ezetz.

Azaroaren 30ean azkenean.

L: Gadeak abendu hasierarako espero zuen haurra eta ordurako amaitu behar genuela garbi neukan. Azaroak 30a proposatu nion Mari Karmeni: Santa Zezilia, kintadak... pasa ondoren, eta azkenean, egun horixe aukeratu genuen.

Nolakoa izan zen azken eguna?

M K: Egun zoragarria izan zen. Jende pila bat etorri zen: familia, bezeroak, txaranga... Orain sentsazio gazi-gozoa daukagu, bukatu da eta orain hasiera berri bat daukagu aurretik.

L: Bertigoa ematen du.

Azken egunean ere txarangaren doinuez inguraturata egon zineten.

M K: Guretzat txaranga eta banda beti oso garrantzitsuak izan dira. Bandako jendeak asko eman digu eta azken egunean ere txaranga ezin zen falta.

Bonboa hartzera ere animatu zinen.

M K: "Ixta" etorri zen bonboa jo behar nuela esanez. Lotsa ematen zidala esan nion, baina azkenean konbentzitu ninduen. Luisek ez zekien ezer eta han azaldu nintzen bonboa hartuta Erdikalean behera taberna barrura.

L: Sekulako sorpresa izan zen, oso polita.

Amabirjinetako azken egunean bandakoek omenaldia jaso zenuten. Hunkituta ikusi zintuztegun.

M K: Ez genuen inondik inora espero. Paso-dobleak ikusten ari ginen leihoan eta bat-batean denek buelta eman eta gure etxera begira jarri ziren. Uste nuen goiko Gloriari ari zirela eta guri ari zirela konturatu ginen. Lotsatuta barrura sartu nintzen. Oso emozionatuta nengoen, ezin sinetsita.

L: Hitzik gabe gelditu ginen, oso hunkigarria izan zen.

Lotura handia duzue bandarekin.

M K: Betidanik, nire ama bizi zenean ere bai. Garai hartan banda ez zen hain handia, eta imajinatu, hemen barruan jotzen zuten Santa Zezilia egunean. Guretzat kristorena da. Banda entzuten dudak bakoitzean suak itzali eta korrika irteten naiz kanpora. Sekulako harremana izan dugu beti bandarekin eta txarangarekin.

L: Bandakoak beti egon dira hemen bueltaka. Elkartean afaria egiten duten bakoitzean gero hona etortzen dira. Beraiek sortutako kantu zerrenda bat daukate hemen gordeta eta etortzen diren bakoitzean horixe jartzen dugu. Asko estimatzen ditugu.



Txispi, Pello eta Fernando bezeroak



Carmen eta Joxe Mari (Mari Karmenen gurasoak) bezeroz inguratuta

Zergatik uste duzue izan dela hori?

M K: Ba ez dakit, beraiek ere horrelakoak direlako, ez diogu buelta gehiegirik eman. Gurea beti izan da taberna irekia, gurekin eta baita nire gurasoekin ere.

Gurasoak aipatu dituzu, goazen hasierara.

M K: Nire ama hona neskame etorri zen, Endoia-ko Beliosoro tabernakoa zen. Hemen lehen beste familia bat zegoen eta tabernak Bekotxoko izena zuen. Ama haiekin egon zen lanean eta geroago estazioko Geltoki tabernara joan ziren. Ama eta aita garai hartan ezkondu ziren eta taberna hartu zuten “traspasoan”. Gu denok hementxe jaio ginen. Beno, Amaia, ahizpa zaharrena Donostian, baina amak esan zuen ez zuela haur gehiago izango han eta beste guztiok hementxe jaio ginen.

Anai-arreba asko zineten, etxea beti jendez beteta izango zenuten.

M K: Bai, egia da, gure etxea beti jendez beteta zegoen. Sei anai-arreba eta gurasoak. Gainera apoloak ere izaten genituen.

Estu baina denak sartuko zineten...

M K: Gela batean bost ume eta bi neskame sartzen ginen. Zazpi pertsona gela batean eta bestean ama eta aita eta ume txikiak. Hemen hazi eta hezi gara denok. Gero garai zailak etorri ziren. Ama 82an hil zen. Aita lur jota gelditu zen, oso gaizki pasa zuen eta 85ean hil zen. Gero anaia 89an auto istripuan. Guretzat oso urte gorrak izan ziren, dena aldatu zen. Ama joan zenean nik bere papera hartu nuen, Gadea jaio arte denen “ama” izan nintzen.

Mari Karmen hemen jaiotakoa da, baina noiz iritsi zinen zu, Luis?

L: Mari Karmenekin 80. urtean hasi nintzen. 82an langabezian gelditu nintzen eta askotan etortzen nintzen hona bere aitari laguntzera, batez ere asteburuetan. Oso gaztea nintzen, 22 urte nituen orduan. Aita hil ondoren pixkanaka denak joan ziren eta biok gelditu ginen hemen.

LUIS: “BANDAKOAK

BETI EGON DIRA

HEMEN BUELAKA.

ASKO ESTIMATZEN

DICUGU”

Noiz hartu zenuten taberna bion kargu?

M K: Ezkondu ginen urtean, 93an.

Errentan hartu genuen guk ere, ordura arte zegoen bezala, Azpeitiko bi ahizpena zen. Obra egin genuen eta, gainera, guk ordaindu behar izan genuen. Ez ziren batere ondo portatu gurekin, asko sufritu genuen.

L: Taberna beranduago erosi genuen, 2000. urtean.

Nola gogoratzen dituzue garai haiek?

M K: Langabezia handia zegoen, enpresa asko itxi ziren. Kalea bete jende, gizonez beteta.

L: Mundu guztia kalean zegoen.

Ez dut imajinatzen Erdikalea astearte eguerdi batean jendez gainezka.

L: Ba pentsa, eguerdian 30 plater izaten nituen prest barra gainean kafeak azkar ateratzeko. Kuadrilla bakoitzak kafea hartzeko bere taberna zeukan.

M K: Jendea kalean zegoen. Etxeetan ere orain baino jende gehiago bizi zen eta denak kalera irteten ziren. Tabernan pasatzen zuten denbora: lagunekin, telebista ikusten... Mahai jokoak ere bagenituen eta hemen aritzen ziren partxisean, Pictionaryn, karta-jokoan...

Eguneroko poteoa existitzen zen orduan.

M K: Bai, noski, baina hori ere galdu egin da. Lehengo poteatzaila figura hori gaur egun ez da existitzen. Beno, lau bat gelditzen dira, baina falta diren egunean ez dute jarraipenik izango.

Eta asteburuetan?

M K: Jendea asteburuetan hemen gelditzen zen.

Noiz bukatu zen hori?

M K: Nik uste dut zuek jaio zinetenean bukatu zela (Gadea eta niri seinalatuz). Play Station eta horrelakoak modan jarri zirenean eta bakoitzak bere gelan telebista izaten hasi zenean.

Eta azken urtetako egoera zein izan da?

M K: Pandemia garaian gazteak oso oso ondo portatu zirela uste dut. Haiengatik ez balitz, hau hilda egongo litzateke.

Eta horrek orain arte jarraitu du?

M K: Uste dut berriz ere lehengora itzultzten ari dela. Pare bat kuadrilla gelditzen dira hemen, baina gehienak kanpora joaten dira. Gaur egungo gazteak beste era batera funtzionatzen dute, oso desberdina da.



Oskar eta Luis lanean



Mari Karmen:
"SUKALDEA
KONFESIONARIOA
ZEN"

Amaia, Mari Karmen
eta Aintzane ahizpak
sukaldean

Ohiturak aldatu dira.

M K: Bai, egungo gazteak ez dira tabernan gelditzen. Orain larunbat iluntze batean 22:30ean etxera joaten dira, "zertara?" galdetzen diet nik. Guretzat hori pentsaezina zen. Ohiturak aldatu dira, jendeak jada ez du poteatzen, ia beti eserita egoten gara.

Pandemiak izango zuen eragina horretan...

L: Erabat. Lehen poteatzen ibiltzen zen jendea, tabernaz taberna zuritoak edaten eta pandemia iritsi zenean, tabernan tente egon ezin zenez, esertzen hasi zen jendea eta zuritoa eskatu beharrean kaña eskatzen.

Izango duzue beti kontatzen duzuen anekdotaren bat.

M K: Puf, pila bat... Gogoratzen naiz umeak ginela nola behin motorrarekin etortzen zen auzotar bat zeharo mozortu zen. Gure amak sukaldean jaso zuen eta hortxe egon zen lo. Gu hurrengo egunean esnatu eta gosaltzera gindoa-zela amak ez begiratzeko esaten zigun eta hortxe zegoen bestea, lo... Horrelako asko.

Txokoko parrandak ere ezagunak dira.

L: Bai, bai, orduan jende asko ibiltzen zen.

M K: Goizeko 5:00ak aurretik ez zen taberna ixten. Beno, pertsiana bota bai, baina itxi ez. Gero denak portaleko atetik irteten ziren. A ze oroitzapenak!

Hutsune handia atzemango da Erdikalean.

M K: Bai, eta pena handia ematen digu.

Tabernan interesa agertu duenik ba al da?

M K: Bai zera, oso zaila da, lotura handia da. Gainera, hau gure etxea da. Beno, norbaitek eskaintza polit bat egiten badigu... pentsatuko dugu (barrez).

Taberna lotura handia dela diozue. Zuek beti "kontrako" aldera ibili zarete...

L: Bai, baina hori izan da gure bizitza, haxe aukeratu genuen.

M K: Onartuta daukazu. Lan egin behar duzu eta punto.

Urte asko elkarrekin lanean.

M K: Bai eta oraindik elkarrekin gaude, ez da gutxi (barrez).

Zer eman dizue tabernak?

M K: abernak bizitza handia ematen dizu. Hau ez da taberna bakarrik, gure etxea ere bada. Lanean geundenean ere etxean geunden eta horrek asko lagundu digu. Umea hemen hazi dugu, txiki-txikitatik, beti hemen bueltaka.

Gadea, zuk ze oroitzapen dituzu?

Gadea: Hau nire etxea da. Txikitatik beti tabernan egon naiz, ke artean (barrez). Herriko gurasoak tabernara etortzen ziren seme-alabekin. Haurrak nirekin etortzen ziren sukaldera jolastera Gero, urteak pasata, nire lehenengo parrandak ere hemen izan ziren. Oso oroitzapen onak ditut, baina orain oso gustura nago. Gurasoei atse-den hartzeko unea iritsi zaie eta pozik gaude.

Jende asko pasa da barra horretatik.

M K: Bai, Zestoa erdi pasa da hemendik: Gaizka, Eukeni, Oscar, Dani, Igor, Felix, Irune, Txero... Bukaeran Itsaso eta Maider "marabillosak". Txero 15 urte ingururekin hasi eta gaur egunera arte egon da guri laguntzen. Guretzat salbazio bat izan da, asko lagundu digu..

Langileez gain, bezero asko izan dituzue.

M K: Bai, pentsatzen hasi eta jende asko etortzen zaigu burura. Hemen beti egon da jendea, etapa guztietan eta beti zian dute erreleboa. Kuadrillak, parranderoak, futbolekoak... Txikitero zaharrak guretzat oso hunkigarriak izan ziren. Gero haiek haurrak izan zituzten eta gure bezeroak izan dira. 30 urtean egunero kafea hartu eta periodikoa irakurtzera etorri direnak ere izan ditugu. Oso maiteak denak. Egunero ikusten duzun jendea da, hildakoan guretzat etxeko bat joatea bezalaxe da.

Barra atzean psikologo lana ere egin duzue..

L: Bai, asko. Jendeak bere gauzak kontatzen dizkizu. Azkenean bere egunerokoan zauden pertsona bat zara eta...

M K: Jendea sukaldera etortzen zen eta hortxe esertzen zen nirekin hitz egitera. Sukaldea "konfesionarioa" zen. Askotan esan didate gabinete psikologikoa kobratzen hasi behar nuela (barrez).

Zer esan nahi diezue bezeroei?

M K: Eskerrik asko bihotz-bihotzetik, barru-barrutik (bi eskuak bihotzean jarrita). Bion partez eta familia osoaren partez. Eskerrik asko benetan urte hauetan guztietan gure ondoan izan diren guztiei.

Zer eskatzen diozue etorkizunari?

Biak batera: Osasuna.

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak



Teknologia, liburu, paper denda



Etxerako osagarriak



Arropa eta oinetakoak



Edertasuna eta ongizatea



ZESTOAKO UDALA

An aerial photograph of a small village nestled in a lush green valley. The village features several buildings with red-tiled roofs, a prominent church with a tall bell tower, and a winding road. The surrounding landscape is hilly and covered in dense vegetation. The title 'ESPAÑOLES, FRANCO HA MUERTO' is overlaid in large white letters.

'ESPAÑOLES, FRANCO HA MUERTO'

1975EKO AZAROA. 11 URTE NITUEN ETA OINARRIZKO HEZIKETAKO 6. MAILAN NENGOEN.

GOGOAN DUT FRANCOREN AGONIA OSO LUZEA IZAN ZELA, ASTEETAN EDUKI ZUTELA INTUBATUTA ETA HILZORIAN, ALDIAN-ALDIAN PARTE MEDIKO OFIZIALA EMANEZ, DENA LOTUTA ETA ONDO LOTUTA LAGATZEA LORTU ZUTEN ARTE. ERREPRESIO IKARAGARRIA JASAN ZUTEN FRANCOREN DIKTADURAN HERRI-SEKTORE ASKOK, BAINA, HALA ERE, GERO ETA HANDIAGOA ZEN PROTESTA POLITIKOA ETA GIZARTE-MUGIMENDUEN INDARRA, ETA HAIEI ESKER LORTU ZIREN ORDURA ARTE ERABAT ZAPALDUAK IZAN ZIREN HAINBAT ESKUBIDE.

Ondo gogoan dut bere heriotzaren berri eman zuten eguna. Ordurako bagenuen telebista etxean, eta gogoan dut zuri-beltzeko aparatu hartan Arias Navarro ikusi nuela (ezizenez *Malagako harakina*, heriotzara bidali zituen errepublikano mordo-agatik) negarrez eta "Espanoles, Franco ha muerto" famatu hura esanez. Gogoan dut, halaber, - ez dakit dolu-egunak egin ote genituen, eta gero izan zen - Juan Sánchezen klasean, hark diktatuta kopia genuela Francoren azken mezua, ez osorik agian baina bai pasarte ezagunen hau (gazteleraz, jakina!): "Nahi nuke, nire azken unean, Jainkoaren eta Espainiaren izenak batu eta denok besarkatu, elkarrekin oiher egiteko, azken aldiz, nire heriotzaren atarian, Gora Espainia! Biba Espainia!".

KRONOLOGIA

Diktadorea hil eta bi egunera, Francok sei urte lehenago bere oinordeko hautatu zuen Juan Carlos Borboikoa errege izendatu zuten. Hasiera batean Carlos Arias Navarro, alegia erregimen frankistako Gobernuako presidentea, karguan mantendu bazuten ere, 1976ko uztailean Adolfo Suarezek ordezkatu zuen, eta indar sozialetako eta alderdi politikoetako buruzagi nagusiekin elkarriketak abiarazi zituen, estatuan erregimen demokratikoa eta adostasunezkoa ezartze aldera.

1976. urtearen amaieran Erreforma Politikorako Legea planteatu zen eta erreferenduma egin zen. Gipuzkoan eta Bizkaian gaitzespen handia jaso zuen.

1977ko ekainean hauteskunde orokorrak egin ziren, eta PSOE (9 legebiltzarkide), EA (8) eta UCG (7) irabazi zuten. Handik egun gutxira, Hego Euskal Herriko legebiltzarkideen batzarra osatu zuten Gernikako batzar-etxean, 1979an erreferendumean onartuko zen Autonomia Estatutu baten bidez Euskal Herriaren eskubide historikoak itzul zitatzela eskatzeko.

1978an Espainiako Konstituzioa onartu zen. Gipuzkoan eta Bizkaian hautesle-errol-daren herenak baino gutxiagok eman zuten ontzat.

ZESTOAN DENA NORMAL

Itxura batean, dena normal-normal zebilen Zestoan Franco azkenetan zegoen hilabete haietan: Arocena hotelak foileto berria ateratu zuen herriaren oparotasuna erakutsiz, Arroa-bera eta Iraetara urak eramateko obrak martxan ziren, kiroldegia eraikitzeko asmoa zegoen eta gobernu frankistaren dirulaguntza jasoko zuen, San Joango bidea konpontzen zebiltzan, herritarrak oso kexu ziren harrobiko hautsa zela-eta, Ereñxunek hitzaldia eman zuen, Ekaingo haitzuloan indusketak bukatzeaz zauden...

Jose Goikoetxea alkateak bere lorpenen berri eman zuen prentsan: udaletxeko batzar gela zaharberritua, anbulatorio berria, Hiri Antolaketa Plan berria eta "beste hainbat txiki-keria". Proiektuei zegokionez, kiroldegia edo Arroagoiko bide berria aipatu zituen, eta urruneko proiektu gisa, besteak beste, kanposantu berria edo balizko Lanbide Heziketako zentroa.

Azaroaren 20a iritsi zen, ordea, eta denak serio jarri ziren: "Udalbatzaren atsekabea Berorren Gorentasun Estatuburuaren heriotzagatik. Aho batez erabaki da aktan jasotzea Berorren

Gorentasun Francisco Franco Bahamonde, Estatuburu eta Armadetako Jeneral Goren, eta lau hamarkadatan esku ildo eta egokiz Aberraren norabideak gidatu dituenaren heriotzak - gaixotasun penagarriaren ondorioz - Udalbatzari eragin dion atsekabe-sentimendu sakona".

Ordurako, Erregimenaren kontura betidanik eroso bizi izan ziren zestoar haiek hasiak ziren beren ideiak pixka bat disimulatzen edo birmoldatzen, eta lau hamarkadatan zapalduta egon zirenak, berriz, zuloatik lepoa ateratzen. Baina hori dena oso pixkanaka gertatu zen.

AMNISTIA

Franco hil ondoren, lehenengo gauza amnistia aldarrikatzea izan zen. 1976ko martxorako 361 sinadura bildu ziren Zestoan "politika eta sindikal asmoko eginengatik espetxeratu guztientzat Amnistia orokorra, atzerriratu guztientzat itzulerako askatasun osoa eta Euskal herriaren herri nahien onartzea" eskatuz, "espetxeratu eta atzerriratuak ere dituen Zestua honetako herrikideen gogo bere eginik".

Udal agintarien deliberazioan diplomazia izan zen nagusi. Inork ez zekien zer etorriko zen Franco hil ondoren, eta askok nahiago izan zuten ez gehiegi konprometitzea. Jose Goikoetxea alkatea prest zegoen udalbatzak mozioa ontzat emateko, "baina beti bereizketa argia eginez delitu politikoen eta terrorismo-ekintzen artean". Azkenean, honakoa adostu zuten "talde politiko, sindikal eta erbesteratu guztiak, ahal den zabalen [amnistiatzea], gizarte zibilizatu ororen arau etiko eta juridiko oinarritzak errespetatuz".

1977ko urrian etorri zen amnistia legea, baina usteak erdia ustel: preso politikoen amnistia ezartzen zuen lege hark, bai, baina era berean, amnistia ematen zien pertsonen eskubideak urratu zituzten agintariei, funtzionarioei eta ordenako agentei ere.

FORUAK, AUTONOMIA, HAUSTURA

1976ko udaberrian, artean alderdi politikoak legeztatu gabe zeudelarik, euskal alkateen mugimendua eratu zen, Hego Euskal Herriarentzako foruetan oinarritutako irtenbide autonomista bat lortzeko, eta, aldi berean, alderdi politikoak legeztatzea, euskara berreskuratzea eta euskal lurraldetasuna defendatzea eskatzeko. Zestoako Udalak ere parte hartu zuen mugimendu hartan.

Besteak beste, Estatutu-proiektu bat idaztea eskatzen zen, alde aurretik eguneratutako foru-erakundeak bilduko zituen gorputz juridiko gisa. Horretarako adituen batzorde bat sortzea ere planteatzen zen. Eskaera hura “preskribaezinak eta ukaezinak diren eskubideetatik zetorren, Euskal Herriak bere erakundeekin gobernatzeko duen eskubidea-rekin bat etorritik, horrela bere tradizio historikoa berretsiz”. 400 zestoarrek sinatu zituzten mugimendu haren aldarrikapenak.

Uztailaren 21ean, alkateen mugimenduak deituta, lau herrialdetako 70 udal bildu ziren Bergarako udaletxean, eta milaka euskaldunek lepo bete zituzten bertako kaleak. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, autonomiaz harago, subiranotasunaren defentsa, euskal lurraldetasunarena eta herriek autodeterminatzeko zuten eskubidea aldarrikatzen zuen planteamendua hasi zen indartzen. 1978an Herri Batasuna koalizioa sortu zen, non batuko ziren hausturaren aldeko mugimenduak. Handik aurrera finkatuak geratu ziren Zestoa definituko zuten bi tradizio politikoak: Eusko Alderdi Jeltzalea eta Herri Batasuna.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA


Euskararen aldarrikapenak indar handia hartu zuen Franco hil eta gero. Esate baterako, 1977ko urte hasieran, Euskadi osoan euskararen koofizialtasuna defendatzeko, sinadura bilketa egin zen Zestoako udaletxeko arkupetan, eta mila sinadura jaso ziren.

Francok ez zuen lortu erabat itzaltzea euskararen eta euskal irakaskuntzaren aldeko lana. 1966az geroztik martxan zen Zestoako ikastola, elizaren aterpean, nolabait esateko. 1976an jauzia eman zuen, eta oinarritzko heziketarako ikastetxe elebidun bat ezartzeko lursailak eskatu zizkion udalari. Interesgarriak dira eman ziren arrazoiak: euskara eza gutzen duten biztanleen kopurua handia da herrian; ikasle euskaldunei zaila egiten zaie haurtzarotik arrotz zaien hizkuntzan oinarritzko nozioak ikasi behar izatea; ikastolak, eraiki zenetik, ikasle gorakada izan du, baina Zestoaan eskolaurre maila bakarrik ematen da; handik aurrera ikasketak jarraitzeko Loiolako Ikastolara joan beharra dago, baina ikastetxe hura gainezka dago eta, gainera, nahasmendu handia da umeentzat joan-etorrian ibiltzea.

Ikastolaz gain, indarrez zetorren Zestoako Gau-eskola elkartearen ere: “Une honetan jende helduarekin egin daitekeen lanik garrantzitsu eta oinarritzkoena berauek alfabetatzea da”.

Kultura aldetik, lehendik ere, dinamismo handia nabaritzen zen, baina orduan lehertu egin zen. Ez da hau tokia hain fenomeno zabal batez luzatzeko baina ezin dira aipatu gabe utzi Zestoako kultur giroaren hainbat adibide, esaterako, 1977an abiatu zen Euskal Zinema Amateur Topaketa, urte hartantxe egin ziren hainbat bertsolari jaialdi, Uztapi-

OSO GARAI
ODOLTSUAK BIZI
ZIREN EUSKAL
HERRI OSOAN, ETA,
JAKINA, ZESTOAN
ERE BAI



deri Endoian egin zitzaion omenaldia ("Egun bikaña Endoia'n" Basarrik zioen bezala), antzerki emanaldiak eta abar luze bat. Euskara batua-ren inguruko eztabaida etengabe haiek alde batera utzi gabe.

BIZIKIDETZA (ORDENA PUBLIKOA)

Franco hil aurretik eta ondoren hainbat herri-sektorek jasandako errepresio gogorrek bere arrastoa utzi zuen udaleko paper zaharretan eta hemerrotekatan. Aztergai dugun momentuari helduz, Udala indarkeriaren gorakadarekin kezkatuta agertu zen behin baino gehiagotan: "Azken egunetan gure probintzian indarkeria ofizialak gora egin izanak kezka larriak sortzen ditu herrian. Ordena publikoko indarren artean ohitura bihurtu da ahalik eta indarkeriarik handiena erabiliz bilera eta manifestazio baketsuak desagitea, su-armak erabiltzea baztertu gabe (1976ko iraila)". Donostiako gertakariak aipatzen zituen udalak, han balaz zauritutako bi lagun, Konstituzio Plazako jai herrikoi batean bildutakoen aurka indar bidegabeena erabili izana, egun berean Groseko danborrada desegin izana, eta horiekin batera Hondarribiko eta Pasaiaiko gertaera odoltsuak.

Hernaniko gizarte-mugimenduen idazki baten berri ere izan zen 1976ko abenduan. Ondo laburbiltzen du poliziaren gehiegikeria: pertsonen eta partikularren erregistro masiboak; atxiloteta ugari, ia guztiak gaueko orduetan, "atxilotuen, senideen eta, oro har, herriaren larritasunarekin"; tortura eta tratatu txar kasuak; errepideko kontrolak areagotzea...

Urraketa horiek denak ez ziren arraroak Zestoan bertan ere. Esate baterako, Euskal Memoria Fundazioaren datuetan, torturatuak izandako 6 zestoar ageri dira garai horiei dagokionez. Baina, batez ere, azpimarragarria da Felipe Suarez Delgadoren eraiketa, 1976ko apirilaren 10ean. Felipe, Zestoako Posta Bulegoko burua, Zarauztik zetorren Federico Astilleros lagunarekin. Guardia zibilak hil zuen tiroz bata, zauritu bestea. 1970etik 1982ra, 19 pertsona hil eta 31 zauritu ziren poliziaren tiroen ondorioz errepideetako kontroletan EAEn.

Beste alde batetik, berriz, ETAren eta inguruko urraketak zeuden. Pare bat adibide jartzearen, 1978an Jazinto Zulaika bahitu zuten Ourense, Aizarnako harrobira ekarri eta hankak tirokatu zizkieten; urte berean Juan Sanchez-i metraileta tiro-sorta bota zioten, Zubimusu kalean, baina onik atera zen...

Oso garai odoltsuak bizi ziren Euskal Herri osoan, eta, jakina, Zestoan ere bai; indarkeria klase guztien gorpil zoro etengabe bat: Estatuaren errepresioa eta haren talde armatu paraleloak, ETA, Komando Autonomoak...

FRANKISMOAREN SINBOLOGIA EZABATZEA

Estatu frankistak ondo definitutako nortasun-elementu multzo oso bat landu zuen diktadurak iraun zuen lau hamarkadatan. Franco hil ondoren, ordea - batez ere, Eusko Alderdi Jeltzalearen ekimenez - hainbat erabaki hartu ziren sinbologia hura ezabatzeke. Aurrenekotako eskaera izan zen Gerra Zibilean hildako frankisten aldeko zestoarren omenez hilerrian jarritako oroitarria ordezkatzeko eta gerran hildako zestoar denen izenak jartzea. Geroago etorri zen Valledanoko kondearen eta Franco beraren herriko seme izendapena bertan behera uztea. 1977an planteatu zen, berriz, herriko kale izendegia berrikustea, Plaza de España izena kentzearekin hasita (gaur egun Foru plaza). XXI. mendera arte ez ziren, hala ere, ezabatu Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren ikur falangista zuten etxebizitza-plakak (Zubimusu kalea) ezta Iraetan eraildako erreketen monumentua ere. Frankismoaren ikurrak eta goraipamenak kentzeaz aparte, zenbait herritarri aitortza egin zion udalak, hala nola Felix Aranbururi, Joan Jose Saezmierari eta Joan Erentxuni, 1975eko abuztuan, eta Eustasio Zunzunegi eta Asuntzion Arrazolari, 1977an. Handik aurrera gehiago ere izango ziren, Uztapide, esaterako.

IKURRINA

Ikurrina, ofizialki, 1977ko urtarrilaren 19an legeztatu zen, baina aurretik ere, eta are gehiago Franco hil eta gero, saiakera ugari egin ziren Zestoan ikurrina bistartzeko. Ezaguna da 1976ko irailaren 8ko argazkia, non kanpandorrearen gain-gainean ageri den euskal zapia eta han kupula gainean hura jartzeko balentria izan zuen herritarra. Behin baino gehiagotan jarri zen ikurrina mendi tontorretan ere, eta maiz ikusi ohi ziren, esate baterako, Ertziñako gurutzera igotzen edo handik jaisten, trikornioz eta kapa handiz hornitutako guardia zibilak.

Euskal Herriko beste herri askotan bezala, Zestoan ere 1977ko urtarrilaren 19an jarri zen ikurrina udaletxeko balkoian, orduantxe legeztatu zen-eta. Arratsaldeko zazpitan Osoko Bilkura egin zuten Udalbatza osatzen zuten hamar kideetatik zortzik, eta bilkura amaitu bezain laster jarri zen ikurrina balkoian, plaza herritarrez beteta zelarik.

Ikurrinarekiko maitasuna adinakoa zen, urte haietan, ordea, gorrotoa ere, eta ez zen falta izan sabotaje-ekintzarik. Oihartzun handia izan zuen, bere garaian, (*El País* egunkarian ere agertu zen) 1977ko abuztuan gertatutakoak: nonbait, herrian ikurrina dezente desagertu egiten zirela nabaritu zuten. Egoera horren aurrean, Jose Manuel Etxabe serenoa, uniformeaz eta bere autoan, zaintza iraunkorra egiteko prest agertu zen. Goizaldeko ordu biak aldera, auto bat hurbiltzen ikusi zuen gasolindegira, herriko sarrerara, ikurrina zegoen tokira; bi edo hiru minutuz bi bidaiariak, geldirik, ikurrinari begira egon eta alde egin zuten, bi ordu geroago itzultzeko. Sevillar gaztea, ezkongabea, lanbidez gidaria, banderaren mastan gora igo eta ikurrina kentzera zihoala, serenoak esku hartu zuen. Istorio luzea da, baina azkenean ihes egiten saiatu ziren, serenoak harrapatu egin zituen, eraso egin zioten honi, txosten medikoa egin zen, eta matrikula gogoan hartu zuen serenoak. Hurrengo egunean, delako "inkontrolatua" udaletxera joan zen alkatearekin hitz egitera, lagun polizia batekin, baina, tira, ez dugu *espoilerrik* egingo. Ez dago esan beharrik, "inkontrolatua" polizia, guardia zibila edo jite horretakoa zela.

Fernando arzallus



BARREAK PROTAGONISTA DANBOLIN ETA AEK-REN URTEURREN FESTAN

ZEuskararen Egunaren harira, giro ezin hobean ospatu genuen azaroaren 28an Danbolinen 25. urteurrena eta Zestoako AEK-ren 10. urteurrena. Udaletxeko arkupea goitik behera apainduta, askotariko ekintzak egin genituen: 24. Korrikako arropen eta Danbolineko egutegien salmenta, photocall-a, Danbolineko egutegiko irudien erakusketa eta, noski, jan-edana ere ez zen falta izan.

19:00ak aldera, arkupea jendez lepo zegoela, Miren Nogalesek, berak azaldu bezala, "ez-monologoa" eskaini zuen Eñaut Pozoren laguntzarekin. Danbolin eta AEK-ren istorioak, baita Danbolin aldizkarian agertutako inkestetako erantzun bitxiak ere, oinarri hartuta, barre algarak sortu zituzten entzuleen artean. Ospakizunak bingoarekin jarraitu zuen eta Aitor Salegik egindako bi bertso kantatzearekin eman genion amaiera festari.



ABENDUAREN 27AN BILBAO ARENA BETETZEKO DEIALDIA EGIN ZUTEN HAINBAT ERAGILE ZESTOARREK

Abenduaren 27an Euskalgintzaren Kontseiluak Bilbao Arenan deitu duen ekitaldi kulturalera joateko autobusa antolatu dute Zestoatik. Euskaltzaleak biltzea eta euskarak biziberritzeko behar duen "pizkunde berrirako txinparta piztea"; horixe da Kontseiluak ekitaldiari jarri dion helburua. Larunbat arratsaldean 17:00etan hasiko da Bilbao Arenan izango den ekitaldia.

Gauzak horrela, ekitaldiarekin bat egin eta bertaratzeko deia egin zuten hainbat eragile zestoarrek: Zestoako AEK, Danbolin, Portale Kultur Elkarte, Ekain Guraso Elkarte, Aizarnako Auzo Elkarte, Aizarnako Guraso Elkarte, Itxaropena Dantza Taldea, Bertso eskola, Zestoako Musika Banda, Zestoako Futbol Taldea, Futbol eskola, Abantzu Pelota Taldea, Zestoako EAJ eta Zestoako EHBildu.

Autobusa arratsaldeko 15:30ean irtengo da Zestoako autobus geltokitik. Txartelak Portale Kulturgunean hartu beharko dira, autobuserako eta ekitaldira sartzeko txartel bera erabiliko da eta 20 € balio dute.



"ELKARTASUN FEMINISTAREN" ALDE BILDU ZIREN ZESTOAN, AZKEN URTEETAN IZANDAKO MOBILIZAZIOARIK JENDETSUENEAN

"Elkartasuna ez da delitua" lelopean, azken urteetako elkarretaratzerik jendetsuena egin zen hilaren 14an Zestoan. Zestoako Mugimendu Feministak deituta, herriko plaza jendez lepo bete zen, pankarta, kartel eta bandera morez, Donostian epaitutako sei herritarren aldeko babesa adierazteko.

Mobilizazioa Mugimendu Feministak argitaratutako "Elkartasun feminista epaitzera doaz Donostian" komunikatuaren ondoren iritsi zen eta izaera ezberdineko 30 eragilek egin zuten bat kausarekin.



ORAIN ARTEKOA ETORKIZUNARI EMATEKO ONGARRI BIHURTU ZUTEN AMILLUBIREN 2. URTEURREN FESTAN

Amillubik abenduaren 14an ospatu zuen bere 2. urteurren festa, iragana ongarrri bihurtu eta etorkizunari ongi etorria emateko asmoz. Auzolana, kafea, ekitaldia eta errituala izan dira egitarauaren ardatz nagusiak.



HAINBAT EKINTZA EGIN ZITUZTEN ZESTOAN ETA ARROABEAN EUSKARAREN EGUNA OSPATZEKO

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu zen, eta Zestoan eta Arroabean hainbat ekintza egin zituzten. Zestoan, Ekain Guraso Elkarateak antolatuta, haurrak udaletxeko arkupeetan bildu ziren arratsaldea euskararen aldeko mezuak zeramatzaten txapak margotzen, banderatzokak apaintzen eta aurpegiak margotzen pasatzeko. Ostean, egindako txapak soinean jarri eta apaindutako banderatzokekin ingurua apaindu eta kolorestatu zuten.

Arroabean, berriz, lehenik haurren txanda izan zen, izan ere, 15:00etan hasita, eskolako jaialdia egin zuten frontoian. Arratsaldean, Kepa Iribarrek hartu zuen lekukoa. Argitaratu berri duen Erleen azken ziztada eleberria aurkeztu zuen Elkargunean, auzotarren aurrean.



KEPA IRIBARREK BERE BIGARREN NOBELA BELTZA AURKEZTU ZUEN ARROABEAN

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, literaturak hitzordua izango zuen Arroabean. Kepa Iribar, Arroabeko bizilagunak, bere nobela berria, Erleen azken ziztada, aurkeztu zuen 18:30ean Elkargunean, Ezkaizto Auzo Elkarateak antolatuta. Kazetariaren bigarren nobela beltza da, eta gaur egungo gatazkak Bigarren Mundu Gerraren itzalarekin lotzen ditu, Getaria eta ingurua eszenatoki hartuta.

Nola sortu zen Erleen azken ziztada-ren ideia?

Aurreneko liburua guztiz bukatu nuenean, argitaratu, aurkeztu, dena eginda, konturatu nintzen asko gustatu zitzaidala prozesu guztia: hasieratik istorioa sortzen hasten denetik bukaerara arte. Denbora pixka bat pasa eta gero pentsatu nuen bigarren bat idatzi nahi nuela. Baina oraingoan diferentea izan zen, aurrenekoan istorioa berez etorri zitzaidalako. Orain, ordea, nik erabaki nuen idaztea, eta ideia bat behar nuen. Komunikabideetan begira hasi nintzen, irradian, telebistan, egunkarietan, eta hiru gai gelditu zitzaizkidan buruan: gerra, ultraeskuina eta migrazioa. Errusia eta Ukrainaren arteko gerra, Bidasoan itota hil ziren zazpi migranteen istorioa, eta hauteskundeak nonahi, ultraeskuina gora eta gora. Hiru horiekin hasi nintzen buruan bueltaka.

Zergatik egin duzu atzera Bigarren Mundu Gerrara?

Gerrak eta ultraeskuinak berehala egin zuten bat naziekin eta Bigarren Mundu Gerrarekin. Orduan bururatu zitzaidan polita izan zitekeela atzera eta aurrera dabilen istorio bat egitea, gaur egungo kasu bat azaltzeko iraganera eraman behar duena. Kasua gaur egun gertatzen da, baina kasu hori ulertzeko Bigarren Mundu Gerran gertatutako gauzak garrantzitsuak dira. Horrek aukera eman dit gerraren gordintasuna erakusteko ere, lehen pertsona kontatuta, gerrara doan gazte baten sentimenduak azalduz, eta pertsona batek gerra batean zer senti dezakeen erakusteko.

[Irakurri elkarrizketa osorik danbolin.eus atarian]



ARGIOLA ENERGIA KOMUNITATEAK AIZARNAKO PROIEKTU FOTOVOLTAIKOA MARTXAN DELA OSPATU DU

Aizarnako pilotalekuan jarritako eguzki-plaken instalazioa martxan da dagoeneko, eta sortzen duen energia herrian bertan erabiltzen hasi dira. Testuinguru horretan, abenduaren 13an, Argiola Zestoako energia komunitateak ospakizun-ekitaldia egin zuen Aizarnan, plakak bete-betean energia sortzen ari ziren bitartean.

Kooperatibako 30 bat bazkide bildu ziren hitzorduan, egindako lanaren emaitza ikusi eta aurrerantzean etorriko diren urratsak partekatzeko asmoz. Iñaki Odriozola eta Aiala Etxabe kideek proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta horrez gain, Arroabeko proiektua ere laster martxan izango dela aurreikusten dutela adierazi zuten.



Nahi baino gubia-
gotan esaten dut
ezet. Konpromiso-
agatik edo gaizki
gelditzeko beldu-
rragatik, berez
ezezkoa esan be-
harko nukeen ego-
retan ere, asko-
tan ez dut esaten.

J. Antonio Cestona
83 urte



Ezezkoa eman be-
har denean, erraz
esaten dut eta
baiezkoa eman be-
har dudanean ere
erraz. Niretzat
onena dela uste
dudanean eta ondo
ari naizela senti-
tzen dudanean,
inongo beldurrik
gabe esaten dut
ezet.

Pello Iparragirre
65 urte



Normalean bada-
kit ezetz esaten,
baina egoeraren
arabera, presioa-
ren ondorioz ba-
tuetan baiezkoa
esaten dut. Baiez-
koa esan eta gero,
askotan pentsa-
tzen dut ezezkoa
esan beharko nu-
keela.

Elaia Zunuzegi
21 urte



Ez, ez dakit. Asko-
tan hala egin behar
izaten da, baina ha-
la ere asko kostat-
zen zait. Pixkanaka
ikasten ari naiz.

Nora Aranguren
25 urte

Ba al dakizu ezetz esaten?



Erantzuleak guztira: 87



■ egoeraren arabera
■ ez, oso zaila egiten zait
■ pertsonaren arabera
■ bai, erraz eta gustura egiten dut



Zubimusu baserriaren ondoko pasabidean
babestu gabeko zatia dago.



Argiolak Aizarnan jarri dituen eguzki
plakak martxan daude jada.

AMAIERATIK URTE ETA ERDIRA

LEGEINTZALDI HAU AMAITZEAREKIN
BATERA, HAMABI URTE BETEKO DITU
UDALETXEAN MIKEL ARREGI ALKATEAK: LAU
URTE ZINEGOTZI GISA ETA BESTE ZORTZI
ALKATETZAN. URTE ETA ERDI FALTA DENEAN
LEGEINTZALDIA BUKATZEKO, BERE IBILBIDE
POLITIKOARI AGUR ESANGO DIOLA IRAGARRI
DU. LEGEINTZALDIAREN ERDIA GAINDITUTA,
EGUN GORI-GORIAN DAUDEN GAIK
LANTZEAZ GAIN, AMAIERA ARTE DITUEN
ERRONKEZ ERE ARITU GARA.

HERRITARRAK KULTUR AZPIEGITURA BERRIAREN ESPEROAN

Kultur Etxearen berritzearen gaia pil-pilean dago herrian azkenaldian. Arregik onartu du pasa dela denbora bat jada eragileen aldetik eta hainbat elkarteren aldetik eskari batzuk egin direnetik, azpiegitura batzuk motz gelditu direlako.

Alkateak azaldu duenez, Zestoako kultur azpiegiturak herrian dagoen kultur jardueraren neurrira egon behar du, eta bide horretan duinena Kultur Etxearen birmoldaketa litzatekeela garbi dute. “Zestoan auditorio handi bat egiteko arazoak handiak dira. Ez zaigu iruditzen bideragarria izango litzatekeenik, herriak urbanistikoki dituen espazioak mugatuak dira, eta ekonomikoki ere bideragarria izan behar du”, zehaztu du.

Herrian hutsik dauden azpiegiturak kontuan hartuta, helburua da “elkarteez ahalik eta modurik duinenean euren jarduerak egin ahal izateko gure azpiegiturak egokitzea”.

Arteagako sarrera-irteera berriak izan du zeresana Arteagako herritarren kexa nabarmena izan da auzoko sarrera-irteera berrien inguruan. Arregik onartu duenez, “Arteagako sarreran ez dugu asmatu”. “Bakarren batek esango du alkatea bertakoa izanik, ez ote zuen hobeto egiteko aukera eduki” dio. Hala ere, helburu orokorra bete dela iruditzen zaio. 2026an Arteagako beheko eremutik autobus geltokira arteko espaloia egingo dute, eta lan hori gauzatzean Arteagako sarrera hobetzeko asmoa ere badutela adierazi du.

ETXEBIZITZAREN AUZIA PRESENTE HEMEN ERE

Etxebizitzaren arazoari helduta, Arregik adierazi du “gure txikitasunetik apustu batzuk” egin dituztela. Batetik, Correoseko eraikin publikoa eraitsi zuten, eta bestetik, Kale Okerreko hamaika etxebizitza erosi, eta egun botatzen ari dira. Helburua Zestoan 22 etxebizitza sozial eraikitzea da, eta horrek “alokairu sisteman eta prezioetan nolabaiteko arintzea ekarri beharko luke”.

Gaur egun, Zestoako 1.800 etxebizitzetatik 300 hutsik daudela azaldu du, eta horren aurrean neurriak hartu beharko direla. Astiazaraneko eraikin hutsari dagokionez, 20 urte daramatza geldirik, eta Arregik zehaztu du eraikuntza enpresa handiago batekin harremanetan daudela, proiektua martxan jartzeko helburuarekin.

HAPOA HERRITARREN KONTUA ERE BADA

Herritar askok gai hau urbanisten kontutzat jotzen badute ere, Arregik nabarmendu du HAPOak (Hiri Antolaketako Plan Orokorrak) egunerokotasunean ere garrantzi handia duela. “Herri baten etorkizunean sekulako eragina dauka, besteak beste, hazkunde-tasetan, ekipamenduetan eta etxebizitza politikan”, azaldu du.

Planak haserako onespena jaso berri du, eta alkatearen iritziz, “momentuko errealitateari erantzuten dio; horrek markatuko du etorkizuneko Zestoa”. Gure herriak lurzoru ugari duten auzoak dituela gogorarazi du, eta auzo horiei etorkizuna bermatzeko plana diseinatu dela. Prozesua gorabeheratsua izaten ari bada ere, lanak oraindik luzerako direla dio: urte eta erdi edo gehiago beharko dute, eta legealdi honetan amaitzea zaila izango dela aurreikusi du.

BADITU PROIEKTUAK ESKUARTEAN

Beste hainbat gairen artean, azken urteetan zaintza komunitarioaren inguruko lanketa garatzen ari da Udala, herriko hainbat eragile eta elkarterekin batera. Hautatu gabeko bakardadeari eta adinari lotutako zaintza beharrei buruzko hausnarketa egin dute. Udalak, halaber, Sabadell banketxe zaharra zegoen lokala erosi zuen duela urtebete, eta orain, Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso dute espazio hori berritzeko. Helburua da bertan Zestoako Zaintza Sarearen gunea kokatzea, eta hori 2026an gauzatzea aurreikusten dute.

AGUR ESAN ARTEKO ERRONKAK

Amaierara begira, erronka nagusitzat euskara jarri du. “Gure hizkuntzaren etorkizuna arriskuan egon liteke egoera ikusita. Herri euskalduna izanda, euskarari uko egitea gure buruari uko egitea litzateke”, azaldu du. Udaleko ordezkari nagusi gisa, “agian neuk ere ez dut maila eman” aitortu du, eta gaiaren inguruko hausnarketa sakona egitea ezinbestekoa dela dio. Zestoa arnagune izateari eusteko erronka handia dela azpimarratu du: “Ezin dugu aurreko belaunaldiak utzitako ondare hau galdu”. Ikerketen arabera, gaur egungo joerarekin jarraituz gero, 2036rako Zestoak arnagune izaera galduko lukeela gogorarazi du.

Taxi Zestoa



9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea
605 765 140 Portale kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
943 147 019
sjzuzendaritza@gmail.com

MGS

Seguros y Reaseguros SA
Mila Aranguren

Tel.: 614 196 483
milagrosarangurenlaranaga@mgs.es

ZURE PUBLIZITATEA

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:
info@danbolin.eus



Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088

kutxabank

ESKELA DIGITALEN ZERBITZUA

DANBOLIN.EUS ATARIAN

Eskela jartzeko zuzeneko bidea:
* Danbolineko telefonora deitu (722 609 265)
* info@danbolin.eus helbidera idatzi.



**EUSKARA
ZU**




MINTZALAGUN

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat:

MINTZATALDEAK - GURASOLAGUN - EKINTZAK - XEDE-TALDEAK - ABANTAILAK



**DOHAINIK DA!
EMAN IZENA**



ABENDUA

18 OSTEGUNA

17:00. Gabon kanten entsegua, Arroabeko Elkargunean. * 18:30. Ertxiña Musika eskolako Gabonetako emanaldia udaletxe azpian.

19 OSTIRALA

10:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Arroabean, eskolatik kalejiran abiatuta. Aizarna eta herriguneko eskoletara ere egingo du bisita Olentzerok.

20 LARUNBATA

18:00. "Min" eta "Gailu" taldeen kontzertuak Gaztetxean. * 10:45. Arroabean adinekoen egoitzetara kantu-bisita, plazatik kotxez abiatuta. * 17:00-19:00. "Mendia Poltsan" umeentzako tailerra Arroabeko Elkargunean.

22 ASTELEHENA

20:30 Gabonetako Abesbatzaren entsegua, Kultur Etxean.

23 ASTEARTEA

18:30. "Txillarreko sukaldaria" dokumentala eta liburuaren aurkezpena, 18:30ean, Alonderon. * 20:30. Gabonetako Abesbatzaren entsegua, Kultur Etxean.

24 ASTEAZKENA

Arroabean: 9:00. Gabon eskea baserriz baserri. Iraetan: Goizean Gabon kantak abesten aterako dira. Arroagoian: 12:00etan Olentzero iritsiko da. * Herrigunean: 17:00etan aterako da abesbatza kantuan San Juan egoitzatik eta kaleetan zehar ibiliko dira. 17:30 inguruan Mari Domingi eta Olentzero Lauiturieta ingurura gerturatuko dira. Gabon kantak abestuko dira plazara bidean.

26 OSTIRALA

Zoroperi eguna. 10:00. Idiakaitzen diana. XXXIV. Barazki eta fruta lehiaketa. Urolako XXVI. Ezti lehiaketa eta erlezaintzari buruzko beste ekitaldi batzuk. XXV. Zestoako Sagardo lehiaketa. Horiez gain, Segurako talogileak, herriko eta kanpoko artisauak eta salmenta-postuak. 11:00. Trikitilariak, kalejiran. 12:15. Itxaropena dantza taldeko gaztetxoak eta helduak plazan dantzan (herritar guztientzat irekia). Zestoako trikitilarien emanaldia, plazan. 12:45. Barazki eta Fruta, Ezti, eta Sagardo lehiaketako sari banaketak. Ondoren, Sagardoa dastatzea, plazan. 14:30. Baba jana Gaztetxean. 18:00. "Magiklown" magia eta pailazo ikuskizuna Kultur Etxean. 17:15 Denok kiroldegira kalejiran txarangarekin. Ondoren, Herri kirol eta pilota jaialdia, Abantzu Pilota Klubak antolatuta. Herri kirolak (harri-jasotzea; lokotx biltzea eta karga eramatea), Abantzu eta Zestoa taldeen artean. Ondoren, Udane eta Eleneren erakustaldia harri-jasotzen. Abantzu pilota klubeko Naroa Agirreri eta Jon Alberdiri eskerrona, Euskal Pilota Selektzioak 36 metrotako Nazioen Liga txapelketan lortutako emaitzagatik. Pilota partida: Txapei – Aizpuru / Sasiain – Elizegi. 19:15. Bertso-poteoa Erniarraitz taldeak antolatuta: Amets Arzallus eta Aitor Salegi. 19:30. Obaneuke erromeri taldea, udaletxeako arkupetan, afalordura arte. 22:30. Obaneuke. 31 ASTEAZKENA San Silbestre lasterketa. 17:00etan hamar urtera arteko haurren txanda, 200 metroko ibilbidea. Ondoren, 11 eta 15 urte bitarteko gazteek 1.000 metro egingo dituzte. 16 urtetik gorakoek 3.000 metroko ibilbidea. Lasterketa guztietan, irteera eta helmuga plazan izango da. Parte hartzeko, egunean bertan eman beharko da izena, 16:00etatik 16:45era bitartean, plazan. Irabazle eta partaindeentzako opariak zozkatuko dira.

URTARRILA

05 ASTELEHENA

Errege Magoen etorrera. 18:30ean Akoatik behera Zestoara iritsiko dira. * 18:10etan Arroabeko Olaetatik abiatuta. (Urtarrilaren 4ean eta 5ean gutunen postontzia Arroabeko eliza aurrean).

09 OSTIRALA

17:00. Gominolak egiten ikasteko tailerra Aiora Urbietarekin, Arroabeko Elkargunean (aurrez izena eman behar da). Olentzerotako afaria Arroabean. 20:00etan umeak, eta 21:00etan 14 urtetik gorakoak.

santainesak iraetan

18 IGANDEA

umeen eguna. Puzgarriak Iraetako frontoian.

21 ASTEAZKENA

Santa Ines EGUNA. Meza eta bazkaria Gure Ordeka Elkartean.

23 OSTIRALA

Mus txapelketa Bekoetxe Merenderoan.

24 LARUNBATA

Goizean, txupinazoa, Santa Ines Pilota txapelketako finalak eta pintxo lehiaketa, Gure Ordeka Elkartean. Arratsaldean, umeen txirrindulari lasterketa, triki poteoa Naiara eta Maitanerekin, garagardo auzo afaria frontoian eta Laket taldearen erromeria.

25 IGANDEA

Errota Harria txapelketa frontoian.

GAZTELEKUA

ABENDUA:

18, OSTEGUNA: Jolas libra (3. zikloa)

19, OSTIRALA: Jolas librea (DBH).

20, LARUNBATA: Bilarreko txapelketa (DBH)

29, ASTELEHENA: Buruarinen tailerra (HH4, HH5 eta 1. zikloa). 16:00-18:00 edo 18:00-20:00, Alonderon. Ume bakoitza heldu batek lagunduta.

Partxis erraldoia (3. zikloa). 16:30, Gaztelekuan.

30, ASTEARTEA: Txuri Urdinera irteera (3. zikloa eta DBH). Irteera 15:45ean kiroldegi aurretik eta itzulera 20:30ean. Autobusa Aizarnan edo Arroabean hartzeko aukera.

URTARRILA

02, OSTEGUNA: Gominola tailerra (2. zikloa). 16:00etan, Alonderon. Patata tortilla lehiaketa (DBH). 16:00etan, Gaztelekuan.

EXPEKTA ARROABEKO AISIALDI TALDEA:

Abenduak 22 eta 29. 11:00etan HH eta 12:00etan LH.

HAURRENTZAT JOLASAK, BARBANCXO AISIALDI TALDEAREKIN:

Iraetan: abenduak 19 (17:00, elkartean)



Zorionak
eta
urte berri
on!



erreabilitazioak

 **RENOVALAN**

RENOVALAN ZESTOA S.L.

943 443 001 renovalan.com

•Eraikuntza eta obra zibila.

•Portalen berritze eta igogailuen ezarpena.

•Lokal komertzialen erreformak.

•Eraikinen birgaitze energetikoa.

•Eraikinen mantentze eta konponketa lanak.

•Fatxada bentilatua eta SATE.